

## Aireportuko espioia

*Hondarribia*, 4. zk., 1986-06: 5.

Hau ez da ipuin bat.

Hau, niri gertatua da.

Franco-ren denboran zen. Hondarribitik kotxez irteterakoan aireportuaren aurrean gizon bat ikusten hasi nintzen. Amutetik honuntz, kamino baztarretik joan-etorriko bidaiak egiten. Hor zebilen gizona bakarrik, tapa-tapa. Ez zen handia, ez zen lodia, eta traje txukunez jantzia beti. Nik neuk pasatzerakoan begiratzen nion, eta hark ere bai niri!... Susmoak aidean eskuz harrapatzen ziren sasoia zen, eta berehala antz eman nion polizia zela. Harrez gero, atzeranzko ispilutik begiratzen nuen, eta konturatzen nintzen haren begirada nire kotxeari, plakari seguranski!, erantsita naramala... To!, hi polizia haiz!

Hondarribiko komisariara (garai hartan Hondarribiak bazuen bere komisaria partikularra, paper zahar eta pix usaina nagusi) sarri joan behar izaten nuen, nire paperak gora-behera, eta topaketa hau egin nuenez gero, nire buruaganako ohar bera halabeharrezkoa egin zen bixita bakoitzean, hala ere, ezer gertatzen ez zitzaidalako, nire errezelua ohiturak, rutinak, jan zidan, eta kito.

Baina denbora pasa, eta aireportu aurretik nindoan batean ikusi nituen poliziak, hamar bat, edifizioaren inguruan apostatuta, zerbaiten zain, eta... gure gizona han!; kamino baztarrean, baina honera eta hara arretaz begira bezala, hantxe!... Nik neuk ondotik pasa nintzaionean ez nion begiratu!, baina behin betiko nire kezketatik irten nahi, eta Mendelun itzulia egin eta gero berriz Hondarribia bidean aireportura heldu nintzenean... han ikusten dut poliziz inguratua zegoen edifiziorantz zihoala eta honen alboan dagoen zoko batetan izkututzen!... Etxean nituen izkutuko paper batzu tokiz aldatu, eta hor noa berriz bide beretik, eta oraingo honetan, gizona aireportuko baztar hartatik begiraile!!

Gizon honen planta ez zitzaidan burutik joaten.

Egun batean etxera igo zitzaizkidan hiru gizon, beste bi zain nituen haserre kotxera sarrarazi nindutenean, baina bostetatik ez zen bat ere aireportuko espioiaren antzik zuenik. Muturrak beltzagoak ziren. Irungo kalabojoan gaua pasa eta hurrengo egunean bota ninduten zubitik at, eta ez bidean, ez zubian bertan ere, ez zen gure gizona agertu.

Hala ere, nerekin eman nuen bere planta buruan.

Pasatzen dira urteak, lau, aldatzen hasiak ziren, Franco-ren heriotzarekin, zerbait gure herriko arazoak, itzultzen naiz, eta kaputxinoetako konbentura noizean behin joaten nintzenez gero, halako batean frontoi bidean dagoen mailartera igo eta han ikusten dut gizona!, polizia!, aulki baten gainera igota kajako-erloju haundiari kuerda ematen... Geratu nintzen begira, ikusi nuen lanean, torpeki, "egun on", esan nion, eta gizonak, poliziak!, burua jira eta irripar gozo batekin erantzuten dit: "bai zuri ere"... eta jarraitzen du bere ahaleginean, inoiz ikusi ez banindu bezala.

Harrituta geratu nintzen eta Porteriari jaitsi eta galdetu egin nion Anai Patxiri, ea gizon hori nor zen...

"A! –erantzun zidan– hori gure etxeko fraide bat duzu..."

"Bai –esan nion– baina aireportuko polizi artean ikusi izan dut neuk gizon hori".

"Ez da harritzekoa. Harantz egiten zuen eguneroko ibilaldia, eta barruan eserita ere egoten zen noizbehinka, denok ezagutzen zuten eta".